

Deklinabidea:

01.- Herrian era guztietako esamesak zabaldu ziren gurdian izkutatzen zutenaz.

_____...ari_____.

02.- Ez arrotzaren janzerak soilik haren beso eroriek ere gogorarazten zuten ogi mutur baten eske herriz herri, etxez etxe bizitza osoan ibilitako baten traza.

_____gain_____.

03.- Gizonak irribarre egin dio emakumeari eta hegaziari buruz komentario bat egin diola ematen du. (95-9-26)

_____gainean_____.

04.- Garai hartako gorbatadunak ere uste zuten langileak zirela. (93-9-23)

_____...tzat_____.

05.- Nork esan non bukatzen den Fellini-gan urrikia, non hasten bihotz gogorkeria? (92-5-16)

_____arteko muga?

06.- Herrialde horrekin badut lotura berezi bat. Lotura horrek urtero-urtero bertara abiarazten nau. (92-5-16)

_____...ekiko_____.

07.- Museo hori, benetan, bikaina da. Zirrara handia sortzen dizu, bereziki pintore inpresionisten bildumak. (92-5-16)

Museo horren _____.

08.- Zoaz,zoaz lehenbailehen. Amaia eta Jontxu bostetan hartu behar dituzu, ikastolatik irteten direnean. (92-5-16)

_____bila_____.

Deklinabidea:

01.- Herrian era guztietako esamesak zabaldu ziren gurdian izkututzen zutenaz.

Herrian era guztietako esamesak zabaldu ziren gurdian izkututzen zutenari buruz.

02.- Ez arrotzaren janzerak soilik haren beso eroriek ere gogorarazten zuten ogi mutur baten eske herriz herri, etxez etxe bizitza osoan ibilitako baten traza.

Arrotzaren janzeraz gain, haren beso eroriek ere gogorarazten zuten ogi mutur baten eske herriz herri, etxez etxe bizitza osoan ibilitako baten traza.

03.- Gizonak irribarre egin dio emakumeari eta hegaztiari buruz komentario bat egin diola ematen du.

(95-9-26)

Gizonak irribarre egin dio emakumeari eta hegaztiaren gainean komentario bat egin diola ematen du.

04.- Garai hartako gorbatadunak ere uste zuten langileak zirela. (93-9-23)

Garai hartako gorbatadunek ere langiletzat zeukaten beren buruak.

05.- Nork esan non bukatzen den Fellini-gan urrikia, non hasten bihotz gogorkeria? (92-5-16)

Nork esan non dagoen Fellini-gan urrikaren eta bihotz gogorkeriaren arteko muga?

06.- Herrialde horrekin badut lotura berezi bat. Lotura horrek urtero-urtero bertara abiarazten nau.

(92-5-16)

Herrialde horrekiko loturak urtero-urtero bertara abiarazten nau.

07.- Museo hori, benetan, bikaina da. Zirrara handia sortzen dizu, bereziki pintore inpresionisten bildumak. (92-5-16)

Museo horren bikaintasunak zirrara handia sortzen dizu, bereziki pintore inpresionisten bildumak.

08.- Zoaz,zoaz lehenbailehen. Amaia eta Jontxu bostetan hartu behar dituzu, ikastolatik irteten direnean.

(92-5-16)

Zoaz,zoaz lehenbailehen. Amaia eta Jontxuren bila joan nehar duzu bostetan, ikastolatik irteten direnean.